

# GILLEN TELL,

## suizarren erri drama nausia

Juan zan udan, Interlakenen suertau giñan egunetan, aukera izan genduan suizarren erri drama nausia dan *Gillen Tell* ikusteko. Izan be au da Interlakenen izena goratzen dabena, Jungfrauoko mendiengandik aparte.

Drama au, Schiller aleman poetak egin ebanik onenetakoua da. Bere sustraiak, suizo erriak kontatzen eban gertaera baten ditxu. Goethek bultzatu eban leyenda ori drama biurtzera. Ta, gaur, euren epopeya nausizat dauke suizoak.

Bere denporan, Alemaniako eszenarixuetan, arrera onak izan zitxuan. Baña, batetik kostu aundikua zalako ta gero zinemak teatrurik geixenak bazartu zitxualako, iñun emon eziñik ebizen. 1912-garren urtian, Interlaken errian asi ziran errepresentaziñuak emoten, ta geroztik urtero emon izan da. Bakarrik, 1914 eta 1939 eten ziran gerria gaitxik. Suizak bere erri barruan gerrarik izan ez ba eban be, erbesteko turistak faltatzetik kanpora, ez zan bake nasaian bizi mugak gerratez esiturik zitxuala. Schillerrek *Gillen Tellen* agotik esan eban bezela: «Gizonik baketsuena be ezin leike bizi baketan auzoko txarrak ola naiko baleu».

Baña, ezbiar orrek ez eben ukatu libertade kanta ixuriz agiri dan drama au berriz bere bidetik jarraitzeko.

Juliotik setienbrera bitxartian eitxen da, domeka eguerdixetan eta eguen gabetan. Mendi-barren bat dauke eszenarixotzat. Dana da naturaia, Elix bat, lau etxe, jauregi bat ta torre bat amaitzeke; gero, alde batera basua aritz, pago ta piñu tantai ederrez beterik. Ta, aurrekaldian, jentiantzako tribuna bat, 2.000 lagunentzako laiñ, bere aterpe ta guzti.

Irureun aktorek parte artzen dabe, beiak eta zaldian sarri agertzen dirala eszena zabalian. Artista onek, Interlaken bertakouak dira, ta euren bizitzan, ogibidetzat danetariko ofiziuak ditxuez; badira artesianuak, biargiñak, basarritarrak eta intelektualak. Euretarike batzuek eundaka aldiz errepresentau izan dabe. Orregaitxik ezta arritzekua bia-

rra ain ederto citxia. Espirituan daroie eszena ta ofizioz teatrura eskinduta dabizenak curak pe ezingo leukie obeto biarra eiñ.

Sarri ikusi ditzugo teatruak, iñoiz operak eta balletak, baña egixa esan, ez olako gauza ederrik. Bene-benetan dala dirudi. Gero, betegarri, musika ederra ez jako falta.

Bertan erabiltzen daben izketia, alemanez da. Baña, liburutxo batzuk emoten ditzueuz, bestelango idiometan, temia jarraitzeko. Ikusi dogunez, españolik ez dabe aintzatzat artzen. Frantzez da italiano artu genduzen. Ta, aurraz irakurri ezkeru oso errez konprenditzen da bertako gaixaren mamíña. Mimika aberatza dauke, ta libreto barikpe ez litzake gaitza jarraitzia.

Interlakenera urreratzen dan mendizalia, gauzonak maite baditxu, ez deilla gelditxu *Gillen Tell*-en drama errikoa ikusi barik.

Gaiztokeriz justua ez dan indarrari ta egiazko justiziarren alde jokatu eban errixaren omenaldi bat da. Bere libertade eskubidiak ezalduz, bidebatez gizon bakotxari beria emonaz. Erri guztiak eta gizon justu guztiak bende guztietan munduan opa izan ditzuen libertade legien omenaldi zintzoa.

Geure bizitza guztian, nekez aztuko jaku jaialdi eder a.

J. SAN MARTIN

